

Pavloven txakurra eta kanpaia



MAIALEN ARTEAGA
KAZETARIA

Naomiren etxeko eskailerak igotzen ari dela datorkion usainak egiten dio memorian tiro. "Ez da sen ona, memoriaren eta emozioaren arteko lotura da. Baldintzapen klasikoa", pentsatzen du Peterrek bere golkorako *Intermezzo*-n, Sally Rooney irlandararren azken eleberrian. Aita hil berritan maitalearen epelera egiten du ihes, eta haren etxera heldu orduko badaki zer gertatuko den, formula bera errepikatzen baitu orainetik ihes egin nahi duen aldiro. Beste formula batek ez luke haien artekoa sostengatuko.

Zeu ere batzuetan Peter zara. Batzuetan, orainetik ihesi, elementuren edo pertsonaren batean bilatzen duzu iraganeko oroitzapena berpiztuko dizuna. Berriro biziko ez duzun eta nostalgia ainguratua eragiten dizun hori bera zure hezur haragitan orduan bezala sentitzeko, orduan bezainbeste sentitzeko. Momentu hartara teletransportatzen zaitu. Beste batzuetan, ustekabea, nahi baino maizago, akaso, berriro sekula biziko ez duzun, baina, barruan bizi-bizi duzun oroimen horrek kolpatuko zaitu (iraganeko kontu hori nahiko aparkatuta, geldi, lozorroan zeneukala uste zenuen arren), bai; berriro ere "kantu batek ireki dizu zauria...". Eta beste batzuetan Naomi izango zara norbaitentzat; elementua

baino, atzean dagoen karga. Kantu forman ager zaitezke, bakarra eta errepikaezinena zirudien usain ezagun batean, autobus geltoki batean, edo errepide seinale batean, bertatik pasatzen zen-eta zugana joan behar izaten zuen aldiro. Jakingo balu zeu ere Pavloven txakurra kanpaiarekin nola, lerdea dariola egoten zarela zuen kantuak jotzen duen bakoitzean... "Zuena" deitzen diozu zuk, baina plural inklusiboa zuk asmatu duzu, zurea delako berea baino gehiago. Berak ez daki zuretzat "zuena" dela kantu hori.

Nonbait irakurri nuen Guardia Zibila Kortatu edo Negu Gorriakekin torturatzen zituela euskal herritarrak, gerora, parrandaren batean kantu horiek entzuten baldin bazituzten, torturek eragin zieten guztia berriro gogorazteko. Bizi osorako tortura, alegia. Pentsaezina da belaunaldi baten eta garai baten soinu banda izan zena nola izan daitekeen infernurik ilunena berpizteko tresna. Bistakoa da: Pavloven txakurraren izena zein zen ez dakigu, baina badakigu kanpaiak zer botere duen. Baliteke bestearentzat hutsala izatea zuretzat kanpaia den hori, kanpaia zurea delako. Ez da zauri konpartitu bat. Zure kanpaia berarentzat ahots goran abesteko beste kantu bat baino ez da, Kortaturenak bezala. ●

Biharamuna



UXUE APAOLAZA
EUSKARA IRAKASLEA

Igande gaua. Umearen gelako atea itxi du, ez guztiz. Ordenagailu aurrean esertzeko momentua atzeratu nahi du. Ordu asko aurretik. Zazpitan jaiki da, eta, bihar ere, astelehena, hala jaikiko da. Pentsatu gabe ekiten badio, lortu dezake gauak pisu existentzialik ez izatea. Akats tragiko bat egin du: ordenagailura bidean hozkailutik pasa, eta atea ireki.

Azpiko tiraderaren gardentasun gardenak dio ez dagoela frutarik. Ez zuen erosketarik egin, ezta atzo ere. Umeak ez du besterik gosaltzen: hala ere, ez dago besterik. Ezta komuneko paperik ere. Sukaldekoarekin tuberiak ataskatuko dituzte. Ataskatzen dira komunak garbitzen ez ditugulako? Ia egunero gorde-

tzen du tarte bat horretarako, eta maindireak aldatzeko, itzulpena bukatuta izango duelako, baina azkenean inoiz ez dago, eta ez du garbitzen. Klaseak presatzeko, artikulua, eta deitu behar dio umearen psikologoari, joan eskolako bilerara, zuzendu jazarpenagatiko protokoloa hasteko gaizki egindako txostena; arropa zintzilikatu, bi lagun gizonek sortutako bi bakardade kudeatu. Bankura joan helbideratutako zera batean kontu korrontea aldatzera. Gurasoak zaindu (umea zain dezaten). Ez gogoratu umeari eskolan...

Hozkailuko atea itxi, "Psikologoarenera joan behar zenuke, munduaren kontra zaudela dirudi", eta ohera sartu da. ●